



EGITASMOAREN IZENA

AUZOKO TAILERRAK [Hi gazte, zergatik ez? Tailer osoa]

"ZUBI BAT EUSKARATIK" DEKALOGOKO ZEIN OINARRIRI ERANTZUTEN DIO

- * Erabileran eta hizkuntza ohituretan eragin
- * Eskubide linguistikoak babestu
- * Euskararekiko atxikimendua sustatu

AZALPEN LABURRA

Hi gazte, Zergatik ez? Tailerrak hizkuntza aniztasunaren eta euskararen erabilera sozialaren inguruko haunsarketa ardatz dituen tailerra da. Egitasmo honetan, hizkuntzen galtze prozesuak kokatzen dira XXI.mendean, eta euskaratik eta honen egoeratik hizkuntzen biziberritzerako gakoak eskaintzen ditugu.

Hizkuntza ekologiari jarraiki, euskararen biziberritzerako eta gazte bakoitzaren hizkuntza ohiturak aldatzeko bitartekoak eskaintzen zaizkie. Hau da, euskararen aldeko argudioak eta aurrez aurreko elkarriketetan euskarari eusteko arrazoi eta gakoak eskaintzen ditugu.

Besteak beste, honako edukiak lantzen dira:

- * Hizkuntza aniztasuna
- * Hizkuntzak kontaktuan eta galtze prozesuan
- * Euskararen egoera hizkuntza galtzeko faktoreekin gurutzatuta: lege markoa, ofizialtasuna, datu soziolinguistikoak, ohiturak...
- * Etorkizunerako erabileran urratsak emateko proposamena

HELBURUAK

1. Munduan hizkuntzen galtze prozesuaz jabetuaraztea gazteak
2. Hizkuntza aniztasunaren inguruan sentsibilizatzea
3. Euskara mundu mailako joera horren baitan ulertzea
4. Hizkuntza biziberritzeko aldaketak ezagutzea
5. Euskararen erabilera areagotzeko baliabide praktikoak eskaintzea

HARTZAILE ZUZENA(K)

14-18 urte bitarteko gazteak

DBH2, DBH 3, DBH 4, batxilergoko 1.maila eta batxilergoko 2. maila

FUNTZIONAMENDUA

6 orduko saioa da, hiru egunetan banatuta.

Ikastetxeko ordutegietan egiten dira, eta 14-18 urte bitartean dauden ikastalde naturalekin.

NON MARTXAN [2021-2022]

Eskaeraren arabera antolatzen da.

ANTOLATZAILEA(K)

- * Euskaltzaleen Topagunea
- * Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea
- * Berbaizu Euskara Elkarte

KONTAKTUA

aniztasuna@topagunea.eus